

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DULANTZIKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea (2019. urtea)

Nik, Joseba Koldo Garitagoitia Odria jaunak, Dulantziko (Araba) alkate-lehendakariak, hau jakinarazten dut:

2019ko martxoaren 1etik apirilaren 30era arteko egun baliiodunetan (biak barne) prest egongo direla, borondatezko epean ordaintzeko, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagozkion 2019ko ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2019ko martxoaren 1etik apirilaren 30era.

B) Maiatzaren 1etik aurrera, administrazio premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera eta dagokion errekargua izango du (Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 28. artikulua).

II. Ordaintzeko tokia eta modua:

A) Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste izapidetik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak.

Ordainketa helbideratuta ez daukatenek borondatezko epearen barruan ordaindu ahal izango dute banketxe laguntzaileetan.

III. Gomendioak:

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak, eta helbide aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Dulantziko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Dulantzi, 2019ko martxoaren 1a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA